



Henry D. Thoreau pentsalari historikoaren azken liburua berreskuratu eta gaztelaniara itzuli dute lehen aldiz

Thorearen 'La dispersión de las semillas' lan berria eskuizkribuak elkartuta bersortu dute, eta konzientzia ekologistaren 'aita' ere badela azaltzen digu Donostian aurkeztuko den liburua.

Argitalpenaren aurkezpena asteazkenean, otsailaren 28an, egingo dute Donostiako Kaxilda liburu-dendan, Antonio Casadoren eta Marc Badalen arteko solasaldian, azken hau gaztelaniazko edizioaren epilogoaren sortzailea eta Cristina Enea Fundazioko Haziera ekimenaren arduraduna.

Donostia, 2024ko otsailaren 23a.- Desobedientzia zibilaren "aita" izatetik kontzientzia ekologistaren aita izatera. Ekologiaren eta politikaren historiak norabide berria hartu dute Henry David Thoreau pentsalari, naturista eta zientzialariaren hil osteko lanaren gaztelaniazko lehen argitalpenarekin. Autorea Martin Luther King eta Mahatma Gandhi bezalako politikari handiek eta sistema kapitalistaren alternatibak salatzeke beste kolektibo askok irakurri zuten, antimilitarismotik ekologismora.

Ingelesez argitaratu eta bi hamarkada geroago, 'La dispersión de las semillas', azkenean, gaztelaniaz plazaratu du 'Pepitas' argitaletxeak; hain zuzen, Thoreauk ia amaituta utzi zuen eta eskuizkribuen bidez berreskuratu zuten argitalpena.

"XIX. mendeko idazle bati buruz ari gara, XIX., XX. eta XXI. mendean bere arrastoa utzi duena gizarte-mugimendu eta gaurkotasuneko gai askotan", azaldu du xehetasunez UPV/EHUko irakasle eta Estatu mailan dagoen Thorearen aditu nagusietakoa den Antonio Casadok. "Imajina ezazu 1993an norbaitek esan zuela: 'Karl Marxen eskuizkribu bat aurkitu dugu, Kapitala bezain zabala, eta horrek frogatzen du Marxek orain arte uste genituenak ez bezalako gauzak egiten eta gaiak lantzen zituela'. Gertaera inportantea izango litzateke. Bada, antzeko zerbait gertatu zitzaion Thoreauri, beti lotu izan baita desobedientzia zibilaren sorrerarekin, esklabotzaren aurkako borrokarekin eta bizimodu sinpleago batera itzultzearen ideiarekin, baina ez hainbeste Estatu Batuetako kontzientzia ekologistarekin, kontserbazionismoarekin, orain ohikoa den estetika naturista batekin, eta abar".

Pentsalari politiko izatetik pentsalari kontserbazionista izatera

Profil naturista eta ekologista hori, behaketa zientifikoaren bidez, aise frogatzen da lan honetan, egilea haratago baitoa eta landa mundua eta hazien sakabanaketaren erlazioa aztertzen baititu.

"Thoreau oso pertsona ezaguna da esparru politiko horietan, baina bat-batean, 1994an ingelesez argitaratutako liburu honi esker, ibilbide zientifikoa zuen pertsona izan zela aurkitu zuten: Thoreau bere bizitzako azken zortzi urteetan egiten ibili zenari buruzko argia ematen du liburu honek. Thoreauk zientzia-jarduera bat zuela eta garai hartarako

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:





berritzaileak ziren gauzen arrastoaren atzean zegoela frogatzen du liburuak, adibidez, urtxintxak bezalako animaliek basoko espezieen transmisioan zuten papera deskubritzea; une horretan Darwin ere bere lanak eta obra argitaratzen ari da, eta jendeak berezko sorreran eta Adan eta Evarengan sinesten zuen. Ezin dugu irudikatu zein iraultzailea izan zen hori", dio Casadok.

Zentzu honetan, Antonio Casado irakasleak eta Marc Badal idazleak lanaren gaztelaniazko aurkezpena egingo dute bien arteko solasaldi baten bidez. Solasaldi horretan, gai horiek guztiak errepasatuko dituzte, baita argitalpen honek etorkizunari begira ekarriko dituen berrikuntzak ere.

Izan ere, Thoreauk liburu horretan azaltzen du nola "dena benetan lotuta dagoen guztiarekin, eta nola bat-batean urtxintxa baten ekintzak aldaketak eragiten dituen basoen segidan".

Horrenbestez, liburu naturista da honakoa, "lurrari itsatsitako" obra, pertsonaia horrek "pentsamenduaren historiari zein mundu naturalari buruz ditugun ideiei" zer ekarri dien argi eta garbi azaltzen duen argitalpena.

EGUNA: Otsailak 28, asteazkena

ORDUA: 18:30ean

LEKUA: Kaxilda liburutegia (Arroka kalea, 2) Donostia

Kontaktu-telefonoa: 665 72 47 52 (Aitor Azurki)

Emaila: cristinaenea@donostia.eus



Rescatan y traducen por vez primera al castellano el último libro del histórico pensador Henry D. Thoreau

La novedosa obra 'La dispersión de la semillas' de Thoreau se reconstruyó uniendo manuscritos y arroja luz sobre este personaje, considerado como el 'padre' de la conciencia ecologista.

La presentación de la publicación se realizará el miércoles 28 de febrero en la librería Kaxilda de Donostia, en una tertulia entre Antonio Casado y Marc Badal, este último creador del epílogo de la edición en castellano y responsable de la iniciativa Haziera de Fundación Cristina Enea.

Donostia / San Sebastián, 23 de febrero de 2024.- De 'padre' de la desobediencia civil a 'padre' de la conciencia ecologista. La historia de la ecología y la política toman nuevos bríos con la primera publicación en castellano de la obra póstuma del pensador, naturista y científico Henry David Thoreau, leído por grandes políticos como Martin Luther King y Mahatma Gandhi y otros muchos colectivos de protesta de alternativas al sistema capitalista, desde el antimilitarismo al ecologismo.

Dos décadas después de su publicación en inglés, 'La dispersión de las semillas' por fin ve la luz en castellano de la mano de la editorial 'Pepitas'; una publicación que Thoreau dejó casi terminada y que fue recuperada a partir de manuscritos.

"Estamos hablando de un escritor del siglo XIX que ha dejado su rastro en el siglo XIX, XX y XXI en una amplia variedad de movimientos sociales y temas de actualidad", explica con detalle Antonio Casado, profesor de la UPV/EHU y uno de los máximos estudiosos de Thoreau a nivel estatal. "Imagínate que en 1993 alguien dice: 'Hemos encontrado un manuscrito de Karl Marx tan amplio como 'El Capital' que demuestra que Marx hacía cosas completamente diferentes de las que imaginábamos hasta ahora'. Sería un acontecimiento, y algo parecido le pasó a Thoreau, a quien siempre se le había asociado con el surgimiento de la desobediencia civil, la lucha contra la esclavitud o el retorno a una vida más sencilla, pero no tanto con la conciencia ecologista en Estados Unidos, el conservacionismo etc. Una estética naturista que ahora es habitual, pero que en su momento no lo eran", añade Casado.

De pensador político a pensador conservacionista

Ese perfil naturista y ecologista a través de la observación científica se demuestra con creces en esta obra, donde el autor va más allá y examina el mundo rural y su relación con la dispersión de las semillas.

"Thoreau es una persona bien conocida en esos ámbitos políticos, pero de repente, gracias a este libro editado en 1994 en inglés, es descubierto como alguien que tenía una trayectoria científica: este libro arroja luz sobre lo que Thoreau anduvo haciendo en los ocho últimos años de su vida. Esta es como la prueba fehaciente de que Thoreau tenía una actividad científica y que estaba tras la pista de cosas que para la época eran

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:





novedosas, como por ejemplo, descubrir el papel que los animales, como las ardillas, tenían en la transmisión de especies forestares; todo ello en un momento en el que Darwin está publicando su obra y sus estudios y en el que la gente creía en la generación espontánea y en Adán y Eva. No nos hacemos a la idea de lo revolucionario que fue eso”, apunta Casado.

En este sentido, tanto el profesor Antonio Casado como el escritor Marc Badal realizarán la presentación de la obra en castellano a través de una tertulia entre ambos, donde repasarán todos estos temas así como las novedades que esta publicación aportará.

Porque, no en vano, Thoreau explica en dicho libro cómo *“realmente todo se halla relacionado con todo, y cómo de repente la acción de una ardilla genera cambios en la sucesión de los bosques”*.

Un libro naturista, un libro *“pegado a la tierra”* que desvela perfectamente lo que ha supuesto este personaje *“tanto a la historia del pensamiento como de nuestras ideas sobre el mundo natural”*.

DÍA: Miércoles, 28 de febrero

HORA: 18:30 h.

LUGAR: Librería Kaxilda (Arroka kalea, 2) Donostia / San Sebastián

Teléfono de contacto: 665 72 47 52 (Aitor Azurki)

Email: cristinaenea@donostia.eus